



gipuzkoako
go gasuna

GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

49. INFORMAZIO BULETINA

> 2010eko Urria

GIPUZKOA





AZPIMARRATZEN DUGU

> Batasuna berrikuntzaren alde: Europa 2020aren ekimen esanguratsua

Europako Batzordeak "Batasuna berrikuntzaren alde" ekimena aurkeztu du; ekimen honek Europaren ahaleginak eta hirugarren herrialdeekiko elkarlana batuko ditu. Batasuna berrikuntzaren alde Europa 2020 estrategiaren ekimen bereizgarria da, eta I+Gean egindako inbertsioa BPGaren ehuneko hiru puntura arte igotzea du helburu.

Ekimen hau ondorengo elementu nagusien ganean egituratzen da: berrikuntzari begirako elkarte europarrak (elkarte pilotu bat, zahartze aktibo eta osasuntsu bati buruzkoa, bi urtetan osasun ona dugun gure bizitzaren zatia 2020 urterako handitzeko helburua duena, eta ondoren, energia, garraioa eta hiru adimendunak, uraren erabilera eraginkorra, lehengai ez-energetikoak eta nekazaritza jasangarri eta emankorrari buruzkoa), ekimena markatuko duten adierazleak, sektore publikoari eta berrikuntza sozialari buruzko ikerketa-programa garrantzitsu bat, produktu eta zerbitzu berritzaileen kontratazio publikoa eta berrikuntza bultzatzeko Estatuko laguntzeko eta Egitura-funtsen esparruen berrikuspena.

Informazio gehiago.

http://ec.europa.eu/research/innovation-union/index_en.cfm#

> Gipuzkoako langabezia-tasa EB-27eko baxuenetakoa

Gipuzkoako langabezia-tasa % 6,7 izan zen III. hiruhilekoan (Eustat), EB-27 osoarena baino baxuagoa, % 9,6 baitzen (Eurostat, iraileko datuak).

Batasuneko 27 Estaturen artean, soilik lau estatuk (Holanda, Austria, Luxenburgo eta Malta) dituzte Gipuzkoak baino tasa baxuagoak. Halaber, Alemaniak, Txekiar Errepublikak, Danimarkak, Ziprek, Errumaniak eta Esloveniak antzeko tasak edo zertxobait handiagoak dituzte.

Konparazioak egiteko orduan, Gipuzkoako emakumeen langabezia-tasa baxua nabarmentzen da (% 6,5), europarra baino baxuagoa dena (% 10,3). Gizonezkoen artean, tasak % 6,9 eta % 9,9 dira, hurrenez hurren.

Halaber, gazteen (25 urtetik beherakoak) langabezia-tasa Gipuzkoan EB-27an baino baxuagoa da, % 13,1 eta % 20,0, hurrenez hurren.

Informazio gehiago:

http://eu.eustat.es/ci_ci/estadisticas/clave_4/ti_Jarduera_lana_eta_langabezia/coyunturas.html

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/3-29102010-AP/EN/3-29102010-AP-EN.PDF



> Gipuzkoako Foru Aldundiaren urteko txostena

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Urteko Txostenak 2009 urteari dagokion ogasunaren jarduerari buruzko informazio osoa eta xehatua jasotzen du. Halaber, Gipuzkoako zerga-jokaeraren eta Foru Aldundiaren ekonomia-finantzen jardueraren ikuspegi orokorra eskaintzen du.

Ogasun eta Finantza Departamentuen Estatistika atarian eskuragarri dago txostenean jasotzen den informazioa.

Informazio gehiago:

<http://webwpub1.gipuzkoa.net/wps/portal/ogasuna>



KOHESIO-POLITIKA

> Eskualdeko hazkunde adimenduna

“Europa 2020 strategiaren baitan, hazkunde adimenduna lortzeko eskualdeko politikaren ekarpena” jakinarazpenaren arabera, eskualde baten lehiakortasuna areagotzeko aukera onena eskaintzen duten balio erantsi handiko jarduerak identifikatu ahal izateko, adimen estrategikoa beharrezkoa da. Hau da, I+Gera bideratutako baliabideak masa kritiko batengana iritsi behar dira, eta gaitasunak, hezkuntza-mailak eta ezagutzaren azpiegitura hobetzera bideratutako neurriak ere izan behar dituzte.

Horrekin batera, nazio-mailako eta eskualdeko gobernuek espezializazio adimendun estrategiak garatu beharko lituzkete, modu horretan, hainbat enpresa-arlo eta -sektoretan kopuru txikiak inbertitu beharrean, eskualdeei baliabideak oinarritzko lehentasun batzuetan biltzen lagunduz.

Goitik inposatutako estrategia baino gehiago, espezializazio adimendunak enpresen, ikerketa-zentroyen eta unibertsitateen arteko elkarlana adierazten du, eskualde bateko etorkizun handiko espezializazio-guneak eta berrikuntza oztopatzen duten puntu ahulak identifikatuz.

Eta honako hauek planteatzen ditu estrategia honen elementu gisa: Berrikuntza-clusterrak eskualdeko hazkundeari begira, ETEen berrikuntzarako onuragarriak diren enpresa-guneak, Etengabeko ikaskuntza ikerketa eta berrikuntzari dagokionean, Eskualdeko ikerketa-azpiegitura eta lehiarako zentro erakargarriak, Kultura-sormena eta -industriak, Agenda Digitala eta Kontratazio publiko berritzailea.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/communic/smart_growth/comm2010_553_es.pdf



> Herritarrek eskualde-politikarekiko duten ezagutza eta pertzepzioa

Eurobarometroaren arabera, Europako biztanleen heren batek badaki Batasunak tokiko proiektuak finantzatzen dituela, eta hiru laurdenaren iritziz, berriz, proiektu horiek eragin positiboa izan dute euren hiria edo eskualdea garatzeko orduan.

Ezagutza-mailari dagokionean, Eslovakia, Polonia, Letonia eta Lituania nabarmentzen dira (biztanleen bi heren edo gehiago). Ezagutza baxua dute (biztanleen bosten bat baino gutxiago) Erresuma Batuan, Belgikan, Danimarkan, Irlandan, Holandan eta Alemanian.

Beren eremuko eragin positiboari dagokionez (ezagutza duten pertsonak), Portugal, Irlanda eta Lituaniaren balorazio positiboa (% 90) nabarmentzekoa da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/communic/smart_growth/comm2010_553_es.pdf

> Tokiko parte-hartze handiagoa Europa 2020 estrategian

Eskualdeetako Lantaldeak, ebazpen baten bidez, atsekabea erakutsi du Europa 2020 Estrategiak eskualde eta hirien eta 27 Estatu kideen eta nazioaren mendeko gobernuen papera eta ekarpena modu zuzenean aintzat ez hartzeagatik. Ondorengo esparruetan ezarritako helburuak lortzeko, benetako balio erantsia ekar dezaketela uste du: garapen sozial eta ekonomikoa, hezkuntza, klima-aldaketa, ikerketa eta berrikuntza, gizarteratzea eta pobreziaaren aurkako borroka.

Eta Europako Parlamentuak eskualdeko eta tokiko erakundeen artean Europa 2020 Estrategiari buruz Lurralde-itun bat sinatzeko proposamena erabakitasunez babestu dadila proposatzen du. Itun horren helburua gobernu maila desberdinak etorkizuneko estrategiaz arduratu daitezzen bermatzea da, Europako, nazio-mailako, eskualdeetako eta tokiko agintaritzen arteko lankidetzaren eraginkorraren bidez..

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2010:267:0004:0005:ES:PDF>



> Vitoria-Gasteiz, Europako hiriburu berdea 2012an

Europako Batzordeak Vitoria-Gasteiz hautatu du 2012ko Europako Hiriburu Berdea izateko. Hiriguneko ingurumen-aurrerakuntzak azpimarratzen dira: "ingurabide berdea", biodibertsitatearekin eta ekosistemarekin lotutako neurriak eta kontsumo jasangarriarekin eta uraren etxeko kontsumoaren murrizketarekin lotutako inbertsioak.

Sei hiri iritsi ziren azken fasera: Barcelona, Malmö, Nantes, Nuremberg, Reykjavik eta Vitoria-Gasteiz. 2013 urterako Nantes hiria hautatu dute. Saritutako azken hiriak Stockholm eta Hamburg izan ziren.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/environment/europeangreencapital/index_en.htm

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/10/1366&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=en>



EUROPAKO ERKIDEGOAREN POLITIKAK

> Industria Europarentzat, Europa industriarentzat

Europako Batzordearen “Globalizazio garairako industria-politika osatu bat” jakinarazpenak, Europa 2020 Estrategiaren ekimen esanguratsuak, hazkundera eta enplegua sustatzera bideratutako ekintza-multzo bat aurkezten du. Hau da, Europan industria-oinarri indartsu, dibertsifikatu eta lehiakor bat mantenduz eta babestuz, ondo ordaindutako enpleguak eskainiko dituen eta progresiboki karbonoaren emisioak murriztuko dituen ekimena da.

Europak balio-kate osoa kontuan izango duen ikuspuntua behar duela azpimarratzen du, azpiegitura eta lehengaietatik hasi eta salmenta ondoko zerbitzuetaraino. Enpresa txiki eta ertainen sorkuntza eta horien hazkundera sustatzea EBren industria-politikaren oinarritzko helburua izan behar da. Bestalde, ekonomia jasangarri baterako trantsizioa lehiakortasuna indartzeko aukera gisa baliatu behar da.

Europako industria-lehiakortasunerako ekintza nagusien artean honako hauek aipa daitezke: ETEen sorkuntza eta garapena laguntzea, mailegurako eta nazioartekotzeko sarbidea erraztuz; sektore zehatz bakoitzerako berrikuntzaren emaitzak aztertzea, sektoreetan ekintzak burutuz, esaterako, manufaktura-teknologia aurreratueta, eraikuntzan, bioerregaietan eta errepideko eta trenbideko garraioan, bereziki baliabideen eraginkortasuna hobetzeko; eta energiaren kontsumo handia duten industrien erronkei heltzea, arloko baldintzak hobetzeko eta berrikuntza laguntzeko ekintzen bidez.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=MEMO/10/532&format=HTML&aged=0&language=EN&guiLanguage=fr>

> Enplegu-politiken inguruko ildoak

Estatu kideen ildo berriak enplegu ministroek erabaki dituzte, Europa 2020 estrategia aplikatzeko esparruaren baitan.

Bide horretan Batasunak erabakitako bost helburu nagusien artean, hiru enplegu-politiken ingurukoak dira: lan-enpleguan parte-hartzea, gizarte-bazterketaren eta pobreziaaren aurkako borroka, eta hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen kalitatea eta emaitzak.

Lan-merkatuari dagokionez, helburu nagusia 2020an emakume eta gizonen enplegu-tasa % 75 izan dadin lortzea da, bereziki gazteek, adinekoek eta kualifikazio gutxi dutenek enpleguan duten parte-hartzea handitzearen eta erregularizatutako etorkinen gizarteratzea hobetzearen bidez.

Informazio gehiago:

http://www.consilium.europa.eu/ueDocs/cms_Data/docs/pressData/en/lisa/117263.pdf



E-LIBURUTEGIA

> Laneko malgutasuna eta genero berdintasuna

Europako Batzordeak lanaldiaren antolaketa malguaren eta genero berdintasunaren arteko konparazio-azterketa egin du Europako hogeita hamar herrialdetan.

Lanaldiaren malgutasunaren ikuspegi orokorra eskaintzen du, lanaldiaren iraupenari eta antolaketari dagokionez. Halaber, arlo arautzaileari eta arlo honetako politiken bilakaerari buruzko informazioa jasotzen da.

Malgutasuna ez da soilik enplegu-eskariaren lehiakortasuna bilatzeko osagai garrantzitsu bat; pertsona eskaintzaileen aldetik, ordutegi malguk nahi diren bizitza-estiloak egokitzea eta lana eta familia bateratzea ahalbidetzen dute.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunetik begiratuta, zalantzarik gabe malgutasuna modu positiboan ebaluatu behar da, nahiz eta ondorio negatiboak izan ditzakeen. Esaterako, soldatapeko emakumeen artean lanaldi partziala malgutasun modu nagusitzat jotzen baldin bada.

Lanaldiaren malgutasunari lotuta, Estatu kideen artean desberdintasun handiak daudela islatzen du txostenak. Holanda nabarmentzen da: lanaldi partzialeko enpleguak dituzten emakumeak % 76 dira eta gizonak % 24. Herrialde nagusien arteko desberdintasunak esanguratsuak dira, esaterako, Alemanian portzentajeak % 46 eta % 9 dira, hurrenez hurren, Frantzia % 31 eta % 6 eta Espainian % 23 eta % 4.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=418&langId=en&pubId=585&type=2&furtherPubs=yes>

> Europar Batasuna munduan

Eurostaten argitalpenak Europar Batasunak munduko gainerako herrialdeei dagokienez duen panorama eskaintzen du, eta Batasunaren, bere Estatu kideen eta G-20ko gainerako herrialdeen adierazle nagusiak eta EBren eta munduko gainerako herrialdeen arteko erlazioak jasotzen ditu.

Ondorengo atalak aipatzen ditu: biztanleria eta migrazioak, merkataritza, inbertsio zuzena, garapenari laguntza, garraioa, turismoa, hezkuntza eta zientzia eta teknologia.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-32-10-333



> I+Ga enpresa handietan

Europako Batzordeak (Ikerketa Zuzendaritza Nagusia) urtero argitaratzen du EBan I+Gan egindako industria-inbertsioari buruzko adierazle-taula, eta munduko 1.400 enpresa handienei buruzko informazioa ematen du (horietako 400 EBkoak dira), eta I+Gan egindako inbertsioen arabera sailkatzen dira.

Europako Batzordeak argitaratutako 2010erako «EBan I+Gan egindako industria-inbertsioari buruzko adierazle-taula» horrek erakusten duenez, EBko enpresa nagusiek I+Gan egindako inbertsioa % 2,6 murriztu zen 2009an. Hala ere, salmentak eta irabaziak askoz ere gehiago murriztu ziren, % 10,1 eta % 21,0, hurrenez hurren. Estatu Batuetako konpainia buruek I+Gan egindako inbertsioa % 5,1 erori zen. Hala ere, mundu-mailan murrizketa txikiagoa izan zen, % 1,9an kokatuz. Japoniako enpresek euren inbertsio-maila mantendu zuten. Asiako beste leku batzuetakoek (Txina, India, Hong Kong, Hego Korea eta Taiwan) aurreko urteetan I+Gan izandako hazkunde altua mantendu zuten.

Japoniako Toyota automobil fabrikatzailea I+Gan munduko inbertitzaile handiena da bigarren urtez jarraian (6.800 milioi euro). EBko hiru enpresa lehen hamarren artean kokatzen dira: Volkswagen, Europan egoitza duen inbertitzaile nagusia, 5.800 milioi eurekin, Nokia eta Sanofi-Aventis.

Zerrenda honetan Euskadin egoitza soziala duten zortzi enpresa daude: Iberdrola, Fagor Electrodomésticos, ITP, Gamesa, CAF, Corporación IBV, FAES Farma eta CIE Automotive.

Informazio gehiago:

<http://iri.jrc.ec.europa.eu/reports.htm>



ADIERAZLEAK

> Industriaren eskabide-zorroaren igoera nabarmena EBan; Gipuzkoan neurritsuagoa

EB-27ko industriaren eskabide-zorroak suspertzen jarraitu du abuztuan, eta urtetik urterako hazkunde-tasa % 23ra iritsi da.

Indize hori gutxieneko mailara iritsi zen 2009ko lehen hilabeteetan, 2008ko udan porrot egin ondoren. Orduetik orain arte hazkunde nabarmena izan du, eta horri esker, eskabide-zorroak 2007ko maiatza-2008ko maiatza aldian lortutako gehienezko mailetara hurbildu dira, nahiz eta oraindik baxuagoak izan, % 12 inguru.

Hobekuntza handiena Danimarkako enpresek izan dute, eta hazkunde txikiena, berriz, Portugalek, Erresuma Batuak eta Espainiak.

Gipuzkoari dagokionez, aurreko urtearekin alderatuta egoera hobetu dela islatzen du Ganberaren inkestak, eta halaber, hurrengo hilabeteetarako joera positiboa iragartzen du. Edonola ere, mailak aurreko urteetakoak baino baxuagoak dira.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/4-25102010-AP/EN/4-25102010-AP-EN.PDF

http://www.camaragipuzkoa.com/upload/es/listados/10_Octubre_2010.pdf

> 18 eta 34 urte bitarteko Europako biztanleen ia erdia familiaren etxean bizi da

EBko biztanle heldu gazteen % 46a gutxienez gurasoetako batekin bizi da oraindik. Estatu kideen artean desberdintasun handiak daude: Danimarkan, Suedian eta Finlandian % 20 edo gutxiago dira, eta Bulgarian, Maltan, Eslovenian eta Eslovakian, % 60. Gizonen artean proportzioa handiagoa da, % 52, eta emakumeen kasuan, % 39.

Biztanle-talde honetan, % 51k lan egiten du, % 33 ikaslea da eta % 10 langabezian dago.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-10-050/EN/KS-SF-10-050-EN.PDF